

"Indarkeria!"

Alderdi, 277. zk., 1972-07.

Azken aldi ontan izan dira bonba-lertze batzuk Euzkadin, eta *izate* usez beste, norbaitek *lertu-araziko* zituen, noski; ala, odol geiago ixuri izan duten bonba eta tiroak aazturik, oraingo oien bizkarrean asi dira frankistak "*Indarkeria!*" letreroa jartzen.

Denok dakiguna da indarkeriak *indarkeria* besterik ezin duela sor arazi. Zer espero zuten, ba, legezkoa zen instituzioa (eta beste aalegiñik egin gabe) guda gaiztoz erail, eta gero izkillu, indarkeri eta gorroto bidez ogei-eta-amabost urte luzean irauin eta gero? Danok dakigu, eurek ere bai ondo aski, indarkeriari leengo kurpilla nork eman zion; eta ez dakiana oartu bedi, besterik ikusi nai ez badu ere, betikoa den seiñale ontaz: aundiak txikia errezago zanpatzen duela txikiak aundia baiño; au indar edo fisika-lege eta politika-lege utsa da.

Guk geok, txikiak geranez, ba dakigu zartakoak zenbait aiñekoak diren.

Indarkerian asten dena aundia denean, txikiari (txikia gizona bada beintzat) animako ezin-egon larri bat sortzen zaio; Dabid-ek ere bai bait ditu oraindik Goliat aiñekoak.

Eusko Alderdi Jeltzalea ez da iñoiz indarkeriaren aldeko izan; eta aalegiñean ez du indarkeri-biderik ibili nai. Ala ere, gizona gizon dela erakusteko beste biderik arkitu ezinik dabilen gaztedia indar-bideetatik abiatzeak ez du arritzen, ez du lotsatzen; arritu eta lotsatuko luke Euzkadiko gaztediaren odol beroak indarkeriari emekeriarekin erantzungo balio orduan gure erriaren azken-kondarrak ere aitu direlaren seiñal izango bait litzake.